

ZUMAIAKO KIROL PORTUA SA

Sozietatearen izena

Zumaiako Kirol Portua SA

IFK

A20506127

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea eratu zen 1994ko azaroaren 3an emandako eskritura publiko bidez, eta EAeko Administrazio Orokorrak eta Zumaiako Udalak partaidetza paritarioa dute. Geroago, [196/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, batetik, «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietate anonimoaren akzioak erostea baimentzeari buruzkoa eta, bestetik, aipatu sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sozietate Publiko izaera hartzeari buruzkoa](#) oinarri hartuta, sozietate publikoa bihurtu zen.

Sail-atxikipena

Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

JESN

9311 Kirol-instalazioen kudeaketa.

Helburu soziala

Sozietatearen xedea honakoa izango da: kirol-portuen plangintza egin, eta haiek bultzatu, garatu eta ustiatzea. Ustiatzea hori sozietateak berak emakidadun gisa egin ahal izango du, edo dagozkion eskubideak hirugarrenei laga ahal izango dizkie.

1995eko eta 1996ko ekitaldietan, Zumaiako kirol-portua planifikatzen eta sustatzen jardun zuen nagusiki, hura eraikitzeke eta ustiatzeko behar ziren proiektuak eta azterlanak egin zituen, bai eta administrazio-emakida egokia lortzeko behar zirenak ere, eta emakida hori, azkenean, 1997ko urriaren 1ean lortu zen, 30 urterako; epe hori amaitu ondoren, lurrak, obrak eta egindako instalazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskura itzuliko dira.

Sozietateak portua eraikitzeke lanak Marina Urola, SA sozietateari esleitu zizkion 1997ko azaroaren 12an. Kontratu berean, kirol-portua ustiatzeko eskubidea ere lagatzen da, emakidaren indarraldia amaitu arte. Lanak 1997. urtearen amaieran hasi ziren, eta 1999ko bigarren seihilekoan amaitu ziren. Ur- eta kirol-instalazioak 1999ko irailean hasi ziren funtzionatzen.

Kirol-portuaren oinarritzko eraikuntza amaitu eta haren ustiapena hasi ondoren, sozietatearen jarduera nagusia emakida administratzea eta kontrolatzea da, bai eta Zumaiako kirol-portua sustatzeko jarduerak egitea ere.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.


Kapital soziala

60.101 €

Kapital sozialaren osaera

EAEko Administrazio Orokorra: % 51,00

Zumaiako Udala % 49,00



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Manuel Leza Olaizola jauna
Edurne Egaña Manterola andrea
M. Almudena Ruiz de Angulo del Campo andrea
Antonio Aiz Salazar jauna
M. Elena Lete García andrea
Alejandra Iturrioz Unzueta andrea
Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jauna
Aitor Leiza Alberdi jauna
Montserrat Arana Pérez andrea
Emiliano Cabañas González jauna
Arritokieta González Elosua andrea

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 54,55

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net

2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	7.167.007 €
Ondare garbia	5.433.742 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	0 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

Foruen Plaza, 1 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Web gunea

Sozietateak ez dauka webgune ofizialik.

Hau da kirol-portua ustiatzeko emakidadunaren Web gunea: www.marinaurola.com.